

Baccalauréat général et technologique

Basque

Classe de première

Compréhension de l'écrit et expression écrite

(3^e trimestre)

<u>Niveau visé</u> LVB : A2-B1	<u>Durée de l'épreuve</u> 1 h 30	<u>Barème</u> 20 points CE : 10 points EE : 10 points
---	---	--

L'ensemble du sujet porte sur l'**axe 7** du programme « **Diversité et inclusion** ».

Il s'organise en deux parties :

- 1- Compréhension de l'écrit**
- 2- Expression écrite**

1- Compréhension de l'écrit (10 points)

Titre du document : « Bazkari bat aniztasunaren alde »

Artikulu honen bilduma egizu, ulertu duzula frogatzeko.

Bukaeran esplikatuko duzu zergatik testu hau « Aniztasuna eta inklusioa » ardatzari lot daitekeen.

Bazkari bat aniztasunaren alde

CEAR-ek* eta SOS Arrazakeriak, integrazioa sustatu eta zurrumurruen kontra egiteko asmoz, Euskal Herrian bizi diren etorkinak eta bertakoak bazkarietan bilduko dituzte *Bizilagunak* egitasmoan, igandean. Parte hartzaileek esan dute bazkaria aitzakia izan daitekeela harremanak sortzeko.

Bertako lagun taldeak, familiak, elkarteak eta beste hainbat jatorriz kanpotarrak diren talde batekin bazkaltzeko elkartzen dira. Hori da *Bizilagunak*-en oinarrietako bat. Denek prestatzen dute jateko zerbait, eta parte hartzeko bi modu daude: gonbidatu edo bien arteko bitartekaritza lana egiten duen dinamizatzaile gisa. Aurreiritziak alde

batera utzi, eta kultura desberdinetako jendea ezagutzeko aukera izaten da, otordu* baten bueltan.

Euskal Herrira duela zortzi urte iritsi zen ekinaldia*; hain justu, 2012an, Gipuzkoara. Besteak beste, honako herri hauetan egingo dute aurten: Araban, Dulantzin eta Amurrian; Gipuzkoan, Arrasaten eta Ordizian; eta, Bizkaian, Portugaleten. Horiek izango dira egitasmoaren lekuko izango diren herrietako batzuk. Iaz 58 nazionalitatetako 2.500 lagun baino gehiagok parte hartu zuten. Aurrera begira, ordea, antolatzaileek espero dute urteek aurrera egin ahala, herrien zerrenda geroz eta luzeagoa izatea; areago, partaidetza handitzea ere espero dute.

Diskurtso arrazisten kontra

Hain zuzen ere, ekitaldiaren aurkezpenean, azkenaldiko diskurtso arrazista eta xenofoboaren gorakada salatu dute. Horien aurrean *Bizilagunak* proiektuaren moduko espazioek duten garrantziaz mintzatu ziren antolatzaileak: «Keinu politikoa ere bada, kulturak nahastearen alde, eta diskriminazioaren kontra herritarrek duten jarrera islatzen duelako», esan du Virginia Cid CEAR-eko kideak. Halaber, goraipatu du gizarteak egunerokoan espazio pluralak sortzeko ere keinu kolektiboa egin duela.

Etorkinen ikuspegia

Bergaran (Gipuzkoa) hiru urte daramatza Karla Sanchezek (Matagalpa, Nikaragua, 1985), eta adierazi du iganderako «gogotsu» dagoela. Nikaraguako eta Venezuelako emakume talde batekin bazkaria prestatzeaz arduratuko da, eta ohikoa den moduan, euren herrialdeetako jaki tipikoak kozinatuko dituzte.

Lagun batek eman zien *Bizilagunak* egitasmoaren berri, eta zalantzarik egin gabe izena eman zuten beste emakume batzuen bizipenak eta errealitateak ezagutzeko helburuarekin; hain zuzen ere, emakumeak bakarrik bilduko ditu bere etxean egitekoa duten bazkarian. «Hori da gehien gustatzen zaidan gauzetako bat: partekatzea. Uste dut motibazio nahikoa dela hori parte hartzeko», adierazi du Sanchezek. Kanpotar gisa, gaineratu du zailtasunak izan ditzakeela batzuetan integratzeko, eta, beraz, esan du halako egitasmoek pertsonak gertuagotik* ezagutzeko aukera ematen dutela: «Hesiak gainditzeko modu ona da», azaldu du.

Berria 2019/11/14 (testua moldaturik)

CEAR : Etorkinak laguntzen dituen elkarte Euskadin

2- Expression écrite (10 points)

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

A galdera

Aniztasunaren aldeko bazkarian izan zara. Zure esperientzia eta sentimenduen berri emanen duzu.

B galdera

Prentsa artikulua bat idatz ezazu jendea aniztasunaren aldeko bazkarira joatera bultzatzeko. Zure argudioak garatuko dituzu.